



MD12013	
Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

## Lan taldearen memoria

Lan taldea: **STEAM**

ikasturtea: **2018-2019**

### 1. Sarrera

Partaideak: Emilio Azueta, Gorka Muñoz, Yolanda Arto, Itziar Otaño, Txus Serna, Ixone Vadillo eta Iñigo García.

Departamentuak esleitu zuen lan talde berri hau baina talde moduan ez dugu lan egin beste lehentasun batzuk izan ditugulako azpi-lantaldeetan (PEG 6 zientzia LH eta DBH eta PEG 7 eta PAMa, matematika taldean).

Berritzeguneetako taldeak sortzen dira behar bati erantzun zehatza emateko, kasu honetan berriz, taldea sortu da argi izan gabe zein den erantzun beharreko zeregina ezta lan egiteko egitura ere.

Izan ere, Berritzegune Nagusiko koordinazioetan emandako ereduak ez dira STEAM arloak era txertatu batean jorratu, baizik eta era partzelatu batean; alde batean matematika, zientzia, artea ...

### 2. Taldean ekoiztutako dokumentuak

Zientzia- PEG6 LHrako eta PEG6 DBHrako.

Matematika- PEG7 LHrako eta PEG7 DBHrako. PAM "Matematikarako konpententzia" HHn, LHn (Euskaraz eta Gaztelaniaz) eta DBH.

### 3. Taldekideek ikastetxeetan egin diren esku-hartze nabarmenenak

PEG 6rekin lotutakoak:

- CEIP ARAIA HLHI
- CEPI SAMANIEGO IPI (LH)
- CEIP ZABALGANA HLHI
- CEIP ABETXUKO HLHI
- CEPI SAMANIEGO IPI (DBH)
- IES SAMANIEGO (LAGUARDIA) BHI

PEG 7rekin lotutakoak:

- CEIP MIGUEL DE CERVANTES HLHI

PAM 715/Matematikarako konpetentzia

- CEIP DIVINO MAESTRO HLHI
- CEIP JUDIMENDI HLHI
- CEPI IKASBIDEA IPI

BALORAZIOA.

Orokorrean balorazio oso onak jaso dira, baina PEGetako saio kopurua motz geratu da eskolek behar duten bezala sakontzeko eta gelan inplementatzeko.

Eskolek hartutako konpromisoak eta ebidentziak bete dira orokorrean, eta bete ez diren kasuetan, prestakuntzak maiatzean bukatu direnez ez dute denborarik izan eta hurrengo ikasturtearen 1. hiruhilabeteen beteko dira.



**Berritzeguneak**  
Vitoria-Gasteiz



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA SAILA  
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren  
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Centros de Apoyo a la Formación e  
Innovación Educativa

**MD12013**

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

#### 4. Prestakuntza ekintzak: taldekideek emandako ikastaro eta mintegiak

Bi ikastaro egin dira:

- PROGRAMAZIOA ETA ROBOTIKA (I)
- PROGRAMAZIOA ETA ROBOTIKA (II)

BALORAZIOA:

Oso balorazio onak jaso dira eta parte-hartzea aktiboa eta anitza izan da. Izan ere, HH, LH eta DBHko irakasleak bertaratu dira.

#### 5. Datorren ikasturterako aurreikusten diren zereginak

Datorren ikasturterako eskoletako prestakuntza nagusiak izango dira PEG6 eta PEG7. Honek suposatzen du prestakuntza moduluak egonkortu eta aholkularien artean zabaldu beharko direla.

Honetaz aparte, aurtien jasotako ebaluazioen arabera, PEG6 PAM bihurtu behar da saio gehiago eskaintzeko esperimentazioari.

Halaber, HH etapatik eskaera orokorra izan da zientziaren jorraketa eta horregatik antolatu da "Zientzia txikia" mintegia.

Azkenik, STEAM talde moduan zehaztu beharko dugu zein den esleitutako talde honen zeregina; horretarako aztertuko dira Departamentuko orientabideak.